

Haurtxoak handitzen direnean jarraitzen al dute kirol munduan?

Azken urteetan, Lezo Institutuko irakasleen laguntzarekin, gurekin eskola kiroleko taldeetan parte hartzen duten jokalarien jarraipena egiteko aukera izan dut. Jasotzen ditugun datuen arabera, ikasle bakoitzak bere kirol bidea hartzeko aukera du eta kirola egiten jarraitzeko joera argia ikusten da. 2010-2011 ikasturtean DBHko ikasleen %81ak, Jarduera Fisikoa egiten zuen eskola orduetatik kanpo. Oso datu positiboa da.

Nola baloratzen duzue zelai edo aretoetan duten jarrera eta lana? eta aldageletakoa?

Lezo Herri Eskolako taldeen jarrera orokorrean ona da, zentzu honetan pozik gaude. Joko aretoetan normalean errespetuz jokutzen dute epailearekin eta aurkariekin. Batzuetan aurkako taldeko jokalariren batekin liskarren bat izaten da baina ez da momentuko tentsiotik pasatzen. Kiroldegietan izaten duten jarrera ere egokia da, instalazioak ongi zaintzen dituzte eta ez dugu arazorik izatean.

Aldageletan izaten dugu puntu arriskutsua; kirol hezitzaileek uneoro kontrolatzen ez duten gunea da eta hor haurrek talde ezberdinekin topo egiten dute (asteburuetan kontrako taldearekin eta astean zehar Lezoko beste taldeekin). Hala ere, nahiko talde arduratsuak dira eta higiearen inguruko ohituretan ereduak direla esango nuke.

